

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Kanalak puntuan aipatu dugun bezala, gure produktua denda fisikoetan zein gure web orri salduko dugu, baina bezeroarekiko harremana pertsonalizatzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Nahiaz eta, aukera automatizatua ere eskainiko dugun gure web orrian, zenbait bideo tutorialak, iradokizunak, gomendioak eta gehigarriekin.

Bezeroak Cleanwinrob-a erosi berri duenean, auto zerbitzua izango du, une berean produktua martxan jartzeko beharrezko bitartekari guztiak dituelako. Horrela prozesua bezeroak berak egin dezake, nahiz eta aipatu eskuragarri duela arreta pertsonalizatua.

Bezeroekiko harreman pertsonalizatua bideratzeko, korreo elektronikoa, sare sozialak eta telefonoa izango dute eskura. Hauen atzean beti, pertsona fisiko bat egongo da, ordezkari erreala guztiari erantzun pertsonalizatu bat emateko. Erositako unean, bezeroak pertsona espezializatu baten gomendioak jasoko ditu erabiliko duen eraikinean. Horrela, bere beharrak asetzeko ahalik eta etekin gehien ateratzea izango da irakaslearen helburua.

Aipatu beharra dago, zenbait bezeroek gure produktua zenbait denda fisikotan erositakoak izango direla, baina hauen arazo edo dudak dituztenak, gu izango gara zuzenki erantzuna emango dioguna. Kanalak saltzeko eta bezeroekiko gertutasuna azaltzeko pentsatua dugu.

Azkenik eta produktu berri bat izango denez, oso garrantzitsua iruditzen zaigu sorrera-kidetza sustatzea. Guztion artean eta bereziki bezeroei esker, produktua hobetzen joan ahal izateko. Gure akatsak zuzentzeko eta batetik, beste erosle potentzialak erosteko azken pausoa emateko eta bestetik, bezeroek beraien artean trikimailuak partekatzeko.